

Kapituluairen gida didaktikoa

Irudiaren osagarriak

Lehen argazkilariek, argazkilaritzaren asmatzaileek, bitartekoaren beraren mugak zirela eta, zailtasun handiak izaten zituzten, argazkietan atera nahi zituztenak eurek nahi bezala ateratzeko. Hogeigarren mendearen hasieratik aurrera, berriz, argazkilaritza komertziala hasi zenetik, gauzak erabat aldatu ziren.

Bideo honetan irudiaren konposizioan eta adierazkortasunean eragiten duten elementuak aztertuko ditugu.

Sorkuntzari leioa irekitze aldera, lantegia atalean, izadia gaitzat hartuta arituko gara argazkiak ateratzen.

02:42 - Argazkiaren erabilera (SARRERA)

Irudiaren osagarriak

06:34- Tonua.

07:06- Tonu mailaketa.

08:08- Argazkia eta tonuak

09:26- Kontrastea.

10:07 - Perspektiba eta sakontasuna

11:14 -Ehunduraketa.

11:57 -Ingurua eta lerroa

13:23 -Erretinua.

14:00 -Forma.

15:10 -Koadroa, forma eta ingurua

15:48 - LANTEGIA : Izadia gai

LANTEGIA: Izadia gai

Lantegia atala ikusi eta gero, taldeak egin eta bakoitzari gai bana aukera dezala eskatu. Jarraian, taldeek lan egitasmoa egingo dute, argazkiak non aterako dituzten eta ateratzeko erabiliko dituzten bitartekoak bertan zehaztuz.

Erabiliko ditugun materialak:

Teleobjektiboz eta makroz hornitutako argazki kamera. Argazki erroiluak.
Tripodea eta kliska egiteko kablea.

ARGAZKILARITZAREN HISTORIA.

Bideo bakoitzaren sarreran, argazkilaritzaren munduan izan diren gertakari eta aurkikuntza aipagarrienak adierazten dira. Atal honetan aipatzen diren datuen bidez, argazkilaritzaren historia laburra kontatu nahi da.

Historia osatzeko, gida didaktikoetan ematen diren datuak koaderno batera aldatzea komeni da; horrela, seriearen ikustaldia bukatzean, gertakarien koadroa erabat osatua izango dugu.

Argazkien erabilera:

.- 1854an, André-Adolphe Disdérik bisita txartel tamainako erretratua aurkeztu zuen.

.- 1900ean, argazki erreportajeek sekulako arrakasta izan zuten.

.- 1920an, argazkilaritza komertzialak argazkilaritzaren mundua irauli zuen.

.- XX. mendearen hasieran, argazkilarien lehen elkarteak eratu ziren.

.-XX. mendearen hasieran, zientzialariak argazkiaren teknika hasi ziren erabiltzen.

5. kapituluko hiztegia

Irudiaren egitura. Argazkiko elementu nagusia inguratzen duten ertzak eta lerroak.

Perspektiba. Argazki batzuetan antzeman daitekeen sakontasun sentzazioa.

Erritmoa. Argazki batzuetan agertzen diren lerro eta formen errepikapena.

Ehundura. Argazkian jasotako objektuen, animalien nahiz gizakien azalaren ezaugarriak.

Tonua. Argazkietan alboetako esparru argi nahiz ilunetatik bereizita agertzen diren intentsitate eta kolore uniformeko guneak.

LIBURUAK

La fotografía paso a paso. Michel Langford.
H. Blume Ediciones. -Madril- 1995

Hauxe duzu eskuetan erabiltzeko libururik osoena eta ulerterrazena.

Macrofotografía. W. Kruyt.
Retrato creativo. P. Zeemeijer.
Técnica fotográfica. W. Broekmyn.
Parramón institutua. -Bartzelona- 1990.

Hiru liburu hauek, batez ere, praktikoak dira. Eurretan adibide ugari aurkituko dituzu gai bakoitza jorratzeko.

Seriesa osatzen duten bideoak

- 1.- Argazkilaritzaren oinarriak
- 2.- Argazki kamera
- 3.- Pelikula
- 4.- Esposizioaren kalkulua
- 5.- Irudiaren osagarriak
- 6.- Irudiaren egitura
- 7.- Konposaketaren artea
- 8.- Koloretako irudia
- 9.- Tresneria
- 10.-Argiztapen artifiziala
- 11.-Kamera sortzailea
- 12.-Argazkilaritza digitala

Ekoizlea:

iadi

Banatzailea:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3
11. bulegoa
01008-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAK
ONETSIA
2002-11-28